

ETNO-IPUIN-ESAUNDAK BILDU BEHARRA

Donostia, 1992-III-25

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Ahozko euskararen mundua, era askotako galgarau ederrez betetako azpira handi, luze eta sakona dugu eta oraingo honetan, herri-ipuin, esaunda edo eta antzerakoak eralgiteari eragon nahi nioke.

Haronako bide bat zelangoa den adierazteko, norbera bertatik ibilita egotealakorik ez dago, egur eskarmentadua sugin ona izaten baita.

Nik neuk, aspaldian eginik eta argitaraturik dudan neure doktorego tesian, hots, “Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-linguistikoa”n oinarrituko natzaizue etno-ipuin, esaunda edo eta antzerakoan bilketa metodologiaren berri emateko.

Zeberioiko herrian darabilgun esaera zahar batez hasi nahi dut oraingo honetako egin behar hau eta honela dio: “Min bako arrana ugerratxaten yok”.

Honek esaera honek dinoena egia izaten bada ere, Zeberioiko euskararen “arranak” badaragoio eragon be oraindik, ugertu barik eta gogatsu bere betiko arrantosean.

Zeberioiko euskara, beste euskalki, azpieuskalki eta aldakien ondoan jartzean, Axularren pasartetxo hau datorkit gogora:

“Badakit halaber ezin eda naitekeiela euskarazko mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzaten baitira euskal herrian... Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere...”

Axularrekin bat nator eta Gorbeia inguruko ipuin-esaundak biltzera On Jose Migel Barandiaranen aholku batek bultzatu nau.

Hamabost urteotan, haren zuzendaritzapeko Bizkaiko Etniker taldean daragoiot batez ere, Gorbeia inguruetako mitologia edo eta bestelako herri-ipuinak biltzen eta sarri entzun diot On Jose Migel misuari

Leipzig-eko unibertsitateko Wundt irakasleak berari esandakoa: “Alferrik zabilta, zuen problema denak, kulturako problemak dira ta. Kultura batere ez duzu konprenituko sekulan, bizi ez baduzu zerorrek. Liburuetatik ez duzu ondo ikasiko. Bueno ba, —esan nion—, kultura ulertzeko, bizi egin behar bada nik bizi dudan kultura bakarra euskal kultura da! Eta halaxe abiatu nintzen”.

Ni neu ere, neure Zeberiora eta ingurura abiatu naiz, bertako seme naizelako eta bertako kultura, hizkuntza barruan dela, inongoa baino hobeto ezagutzen dudalako.

Lehentxoago aipatutako tesiko atal baten, “etno-testoak eta euren metodologia” aztertzen da. Herri-ipuina eta esaundagintzan aikomen hausnarketa pare bat:

1. Norberak aztergai izan duen herri-euskara titirikarakoa izan arren eta metodorik zehatzena erabilita ere, muga handiak aurkitzen dira ahozko euskera biziaren baliabide mugagabeak jasoteko. Azken baten, pertsona bakoitza, bere berezkotasunez beterik bizi da etengabeko hizkuntza-prozesu baten barruan.

2. Etengabeko hizkuntza-prozesu horretako ahozko euskera bizian dauden nibelak, egon ere badaudelarik, arruntenetik hasi, irudi-topikoz beterikoaz jarraitu eta goi mailako landuenera heldu arterainokoak, jaso beharrekoak dira, tokian tokiko eta ahal denik eta zehatzen, bizi dugun egoeraren urgentziak eraginda, izan ere, euskal literatura idatziak ez duelako jaso euskararen izate osoa. Horregatik, aldaketa sozioekonomiko-kulturalaren eraginez eta belaunaldiz belaunaldi bidean zeozer uztea bidezko denez, ez da erreza ahozko euskara biziaren izate osoa jasotea, baina mugaz aparte, metodologia egoki bat erabiltzeaz gain, Euskadi luze-zabalean, norberak benetan bizi duen lurraldeko euskara mota biziaren altxor-jasoketa egitea, behar beharrezkoa da, aberastu nahi bada guztiok gura dugun etorkizuneko euskara eta euskal kultura.

Hausnarketa hau egin ondoren goazen herri-ipuina zein esaunden etno-testu-batze bidera beti ere aholku hau kontutan harturik: jan-edanak ahotik ezeze begietatik ere sartzen zaizkigu, ba, entzuteko begiak itxi eta belarriak zabaldu, belarriak baitira entzuteko eta ez begiak.

Etno-testu bat jasoteko, beste batzuen artean, jarraian aipatuko ditudan puntuak euki behar dira kontutan:

1. **BERRIEMAILEA**

Mendel-en idar-legeen zehaztasunera heltzea ez da erreza gizarte gurutzatu honetan baina zehaztasun minimo batzuetara heltzea beharrezkoa dugu ahoa askatu baino lehen.

Edozein herri zein lurraldetako etno-testuak jasoteko *berriemailea* ondo aukeratu behar da eta bere fitxa zehatza egin ondorio fidagarriak aterateko. Mapa eta guzti egiten bada askoz hobe.

Alor honetan, zenbat eta fitxa zehatzagoa egin, hobe, eta batez ere ama-hizkuntza non eta nogandik ikasi duen azpimarratzea behar-beharrezkoa da, sarritan bizilekua eta jaioterria ez direlako bat. Eta hau guztiau ez bakarrik herri batetik besterako, heri barrurako ere bai, herri baten barruan ere ia-ia baserri batetik bestera aldakuntzak aurki daitezkeelako.

2. GRABAKETAREN HISTORIA

Alde batetik tresneria egokia erabili behar da eta bestetik giro ona sortu, zein berriemailea artegatu. Zenbat eta zaharragoagana joan hobe.

Giro on baterako, senitartekoak izaten dira egokienak baina esataria ezezaguna bada bion lagun den norbaitekin joatea da onena.

Sarri askotan berriemaileak katean etorten dira, bata kontatzen daukazula beste bat aipatzen du eta firua jarraitzea baino ez dago.

Anekdotak gisa, behin, Orozkon, Jose Mari Lasari grabatzen nembilela, kontakizun bakoitzaren atzean hauxe esaten zidan: "Baenki sainbe(t)k(g)ustauko llatan gure amari entzutea onik kontuok". Eta halaxe egin nuen, Basaurira joan eta Magdalena Bengoetxeari egin grabaketa, eta jakina bere amaren euskera hainbat mamitsuagoa.

3. EBOKAZIOA

Gure zaharrak azpira, zahar baina bete-beteak dira eta sarritan eurak ere ez dira konturatzen. Horregatik, biltzaileak *ebokazio* metodoa erabili behar du azpira bete horretan daukatena gogorazazteko.

Ebokazio on bat lortzeko, norbera be azpira zahar betea izatealakorik ez dago. Baina hori posible ez bada, gutxienez, biltzaileak, han hor hemen eginda dauden inkesta ezberdinen berri jakin behar du ezer ganorazkorik lortzekotan. Argibide lez eta bat behintzat aipatzearren, horra hor On Jose Migel Barandiaranen inkesta etnografikoa.

4. GRABAKETA NEURRIA

Neurririk ez dago. Ekin berriemailearen iturria agortu arte. Alor honetan zera bai euki behar dela kontutan: Biltzaileari ibiliago eta ezagu-

nago egiten zaizkio berriemaileen kontakizunak eta sarritan errepikatu ez egiteagatik jasotzat ematen ditu. Baina kontuz! Berriemaile bakoitzak bere erara eta bere aldakiekin kontatuko du ipuina eta hori aberasgarriada. Adibidez: Nork ez du ezagutzen Anbotoko Señorea. Baina berriemaile bakoitzak, Anbototik aparte, bere inguruko mendiren batetik ikusi izango du zuzian garra dariola.

5. ETNO-TESTUEN TRANSKRIPZIOA

Etno-testu baten, sakoneko zehaztasunak ikertzeko, gaur eguneko laborategi fonetikoetara jo behar da. Baina etno-testuen jasoketa siple bat egiteko, belarri edo entzumenen bidez ere lor genitzake transkripzio fidagarriak metodologia on bat erabiliz gero.

Esandakoari eutsiz, hauek lirateke besteak beste etno-testuak jasoteko punturik behinenak:

1. Euskara biziaren grabazioa fonologia mailan transkribitu “komi-lla” edo kaxotxoaren artean adieraziz hasieratik bukaerara.

2. Fonologia maila mugatua denez, eta zehaztasun gehiago nahi badugu, fonetikara jo behar dugu “kortexte” artean adieraziz, eta hor ezin bada dena argitu, laborategia erabili.

3. Transkripzio mota bi hauek eredu literarioa behar dute ondoan, hizkuntza idatzitik mintzaturainoko bidea ikusi ahal izateko.

4. Ez nahastu “eredu literarioa” eta “euskara batua”. Lurralde bakoitzeko etno-testu bakoitzak bere sistema literarioa du eta hortixek hasita aztertu behar da ahozkerarainoko bidea. Esate baterako Bizkaiko Zebe-rioko “esan audien” ez dator batuko “esan zuten”etik. Batua jarri nahi bada, jarri, baina lagungarri edo ekibalente bezala.

5. Etno-testu bat transkribitzerakoan fonetikaraino joz gero, aurrez-dik esan behar da zein alfabeto fonetiko erabiliko den: A.P.I.; Filologikoa edo Etnologikoa.

Zehaztasuna neketsua izaten da eta sarritan erraztasunagatik fonologia maila hutsa darabilgu transkripzioetan, baina horrela izanik ere, eta fonologia maila labur geratzen den etno-testuetarako, sarrera gisa edo eta ohar bidez, esan egin behar da edozein irakurlek okerbide bat hartu ez dezan, izan ere eredu okerretatik ondorio okerrak datozelako eta jakina, gaur egun baditugu euki ere arrisku horretan jausi ez egiteko bideak.

Eta gaurko gai hau bukatzeko, zer hobeagorik Gorbeia inguruko etno-ipuin bat edo beste irakurtzea baino!

ANBOTOKO SEÑOREA SUPERLEGORREN

(Simon Goyoaga. 1979.eko grabaketan 77 urte. Zeanuriko Ipiñaburukoa. Orozkon kridu egondakoa, gero Arteako seminarioan eta Zeberioko Undurrara ezkondua)

“Urigoiti aspian dan Olarten ein aurien olea. Orduen munduen es egoan fraikerik es eser. Et’antxe arriegoan burriña edo eiteko, eta fundauen olea.

Da olea fundeu auen lekuen ifini euren itzelesko errudandi bet, egurreskoa a olea mogitako.

Asi sirian ba bearren asteko, ta ifini aurien olori t’esin aurien mogidu esetara be. Eta baten batek esan otzela:

—Ori olori mogidu bear bosue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana yoan beosue konsulte bat artzean ia sela(n) mogidu leien.

Da usabak, propiedadedun bet ixingo san, da bera bildur de, errentorea agindu auen.

Eta errentorea yoan san Supilaurko kuebara Anbotoko Señoreagana, da, Anbotoko Señoreak ei auken alboan erri- sekor bat itxunde eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

—Ementxe nator ba

—Ser dakastesu ba? —kontestautzela.

—Konsulte batera nator, —t’esan otzen—: Urliak, Olarteko serak, —nau-si bet isingo san, lenaokoa—, olea in dau d’esin dau mogidu, da batonbateg konsultetako Anbotoko Señoreagas.

D’anbotoko Señoreak esan otzen se:

—Au olau mogidutia gure bosue, urlie komentoko superiorragana soasie t’axek esangotzue. Se ori olori suotaukosue bendesidu barik —se fraikek eta oneik autoak eta barkuek eta oneik bendesidu estire eiten?— eta orrek olorrek esin dau mogidu deabruetauko detenidute.

T’emon otzen sagardoa, basukadea. Lenao usedioa egotesan ullesko subiak fundetan sireala iturrietan da baton batek edan auela ullia ta gusti, sera, ure, ta fundidu yakola barruen subia, aregas ulliagas da gero andik etorri sala “Jesus” esateko usedioa, edan itorduen. A “Jesus” esan eskei-ño estala formetan suberik. Balitike ori egie ixitia esta?... kontetan dire ta, gausek eta...

Eta orrepesteorrek, sagardoa edan auen da esakerea auken “Jesus”, eta esan auen “Jesus” eta itxi autzen basue.

Eta badiñotzo Señoreak:

—Au basu au eroaixu, se onegas len badauke(t) penitentziegandik, andiagotaukodas, se au basu au suk in dosu bendesidu, “Jesus”esan dosunian.

Da yoan sirian komentuko superiorragana d’etorri sen superior ori t’estolea imini, bere yantzie sertu d’asi sen bere bereinkasiñoa botaten.

Eta tu-rru-mu-tu! ikeragarrisko bategas asi sen orrenbeste egurreko errudia bueltaka.

Danak ikeratute, eta superiorrak esaten otzien: Es bildurtu, es bildurtu, es bildurtu...!

Eta askeneko burrundada bategas yoan i sen andi deabru ori eta esautzen superiorrak:

—Ikustosue? Suok lelungotan bendisidu in basinduen, bearra asi orduko, au mogiduingo san ondo. Baye tire, oin segidu olonegas, segon da deabrue(k)t(d)etenidute.

Su, balitike orreik egiek ixitea esta? Ara, siñestu gurestituenape, an daukies ondiokarren an Olarten aldibeteko olearen antigualeko serak, arriek, sinifikasiñoa antxe aukingo daurie.”

BALTZOLAKO SUBEA

(Patxi Bilbao. 1986.ean 82 urte. Dimakoa. Lemoan bizi da)

“Aldekotxean bixi sirean anai bi auren gurasoakas, bata san Pedro eta bestea Anton.

Da, egun beten, garagarrille san da, bero... D’esanotzen anai batapesteari:

—I!

—Ser?

—Gaur u egurdiek e itxure ona yakak, da, yo gainkek Soloandiko gari-meta bat!

—Ederto! —esautzen besteak—. Lelengo in yeguasen ganadu edo gaure lanak eta gero armosaute yoango gosak e metea sabalduten.

Yoan sirean, da, allegau sireanean gari metean ondora, batek artuuen besarkada garie, ogei eskute edo, besartean da, bestea geratu sen begire ak artute gero berape artuteko, da, esaotzen:

—I, Pedro, subea yaok or! Da, oño! artu garrote bat eta tragaik!
—esautzen da.

—Tragau es, eskoasak tragetan, ori be Jangoikoak ine dok eta, bixi daitela!

Baye Anton esin sen aspertu orrikas kontuokas da, Antonek topauen an garrote bat eta yo, da, bustena kendutzen subeari.

Subea gorde yakien, da segidu aurien anayok, da... urteatxoan urteak etorri, etorri sen gerra bat, Españek e gerrak nasino askogas aukitu, gerra gogor bat etorri sen da...

Da gerran sugertau yakon anai bateri soldadu yoatea eta bestea bere gurasoakas etxean geratu sen.

Da gero ba, gerran segidurien da segidurien da akabau sen gerre ori. Gabon egune san.

Gabon egunean mutilek lisenisau situsan etxerako, da, auren gurasoak eta urrin... auren Gabon gaube selan ixingo ete dan da...

Gixon ba(t) plantau yakon ondoan Aldekotzeko Pedrori, esetan estauen gixon bat eta esautzen:

—Aldekoetxean oxorro(mesmeru) gorriek orrie fresko yaukok!

—Ik ser dakipa, Aldekotzeko oxorro gorrien barri?

—Nitxakin! Seinbepaño gurago aunke aure gurasoakas gaur gaubean afaldutea?

—Nik i, gure, ba, mundu dana baño geao, baye ori ixilitikok ixin.

—Ori aukurebopai!

Berak a, gure badauela...

—Bueno ba, yarri ai emen nire biskerrean, da, allegaukosak Arraño-mendietara, d'Arraño-mendietara allegetan garen orduen, nik ingo yoadas laprastadak eta komediek ingo yoasat nik, baye, estok esango "Jesu-sik"(g)ero, arre diablo baño!

Allegau sirean Arraño-mendietara, asten da deabru ori gota ta bera, gixonori komedietan...

—D'arre diablo t'arre diablo ta...

D'ensegida plantau sirean gixon biek Baltzolako kuebako arratean. D'esaotzen deabru orrek e Pedrori ba se:

—I, barrure yoan beaiuk.

—Ni es barrure.

—Bai, yoan beaiuk barrure.

Bera be pentzetan ba se gixon ixingo ete san edo ta tire ba, yoan sirean kuebearen atakatiparrure.

Da barruen egon san gixon bat artza baten lo. D'esaotzen e Pedrori ba se:

—I, artik emetik moltzo bat etxerako!

—Es, —se pentzetauen Pedrok iketzak edo ilintiek sireala aik esatozsan serak eta esetz— se gure aitek e onangoak iten ditu te nik es!

—Artik, etxata damutuko ta!

Artuuen moltzo bat eta urtaurien kanpora ta begitutzienean:

—Oño!, onik urregorrietire bata!

—Baa!

—Atzera be geao artu beot.

—Es, es, oin es. An ikusi ok artzean gixon ba(t)lo estok?

—Bai.

—A oin itxarritxaok, da, yoango bagintzosak egundo geao eskeunkek e batape urtengo.

Ori esautzenean beste ori be bildurtu sen da, gero esaotzen e:

—Akordetan yata i te ire anaya Aldekotxeko Soloandire gari- sabaltan yoan da gari-metan selan topau senduen subea?

—Baa!

—... D'iri esaoan anayak, ori sube ori tragetako, d'ik esaotzan tragau esetz, a be Jangoikoak ine dala ta bixi daitela! B'aikomen, atzamar txikie falta yoat, subean bustena, atzamar txikie falta... Da, beitik ser dinoadan: inori onik ingo espotzepe, txarrik iteko geniorik esaik auki, esaik auki egundo kristo geniorik euri gustetan etxatan gausarik inori iteko, se ire anaya i sugertau asen lekuen sugertau balitzok, etxoa egundo geao inok ikusiko. Eta ganera, Aldekotxeko etxaguntzan inosbesto(k) faltako mutue edo mankue edo errena, egundo be estuste faltauko...

Da Pedrori emon otzen garriko gorri bet esanes:

—Au emoyok anayari!

Da, Aldekotxeko etxea andik kobati kilometro bat ingurure dao d'entzegida plantau sen Gabon gaubean familien.

Ateatxo ta seme galdue ateatan ikusi aurienean e adore barikeratu sen famili ori te:

—Selan ixin dok ori te edo selan ixin den da?

—Onixek eta onixek pasau yatas, eta anayari adikuna bat botata: D'esan yostek ni sugertau nasen lekuen i sugertau baintz, es induala geao inok ikusiko, d'auxemon yostek iri emoteko, auxe garriko gorri au.

—Nik i setako yoat ori ba? —esaotzen anayak— lotuyok portaleko oxorroari (mesmerueri).

Da lotuten dotzo mesmerueri te, susterreti atera ta eroauen e infernuetara edo ainbatera.

Da nire amamak esatauen, nire amama il sen oin irurogei urte larogeta amalau urtegas, d'ak esatauen auren amamak eta, esatauriela a kueban artuko ilintien urregorrien diruekastau artean, San Pedron, Gabon gaubeko amabietan mesea oten sala, Dimeko San Pedron elexa nausien”.

Etno-ipuin-esaundak, zenbat eta zehatzago jaso, hainbat argitasun gehiago gerora aztertu bahar duenarentzat. Balioa barriz, bikoitza da: Etnografikoa ata Linguistikoa. Gure geure asku dago gaurra gerora bide-ratzea eta zor diugu gaurra gerokoei geure betiko euskal hageari jarraituz baina kontuz! zehatzak izan bestela egunean baten “estan bedarra beres igertuko da”.